

## **Zapore gazi gozoa EAerako curriculumean**

Lehenik eta behin curriculumaren zirriborroaz mintzatzen ari garela adierazi behar dugu, beraz lerro hauek behin-behineko balorazio labur gisa hartu behar dira, behin betiko testuari sakoneko azterketa egin artean.

EAEko Hezkuntza Sailak aurkeztu duen oinarrizko heziketarako curriculum honek zapore gazi gozoa du, zenbait ataletan aurrerantz urratsak ematen badira ere, beste hainbatetan hutsune nabarmenak sumatzen dira eta.

Prozedurari dagokionez, ikastetxeetatik zein sindikatuen aldetik curriculumaren inguruko eztabaidan partaidetzarik eza izan da hutsune horietako bat. Honekin batera, ikasturte amaiera honetan presaka eta korrika aritzea da bestea. Uztailean sartuta gaude eta oraindik ez dago indarrean. Nola bermatuko da bere ezarpen egokia datorren irailean prestakuntza eta aurre ikuspenik gabe? Gutxi al da lehendik ere sortu duten nora eza ikastetxeetan?

Bestalde, harrigarria da Haur Hezkuntzaz ezertxo ere ez jasotzea, erkidego honetan, estatuan ez bezala, haurren ehuneko ia ehuna eskolatua dagoela jakinik, derrigorrezko ikasmila ez izan arren. Nola gauzatuko da adin ezberdinen artean egon behar duen ezinbesteko heziketa koherentzia? Guretzat, funtsezkoa da lotura hori Haur Hezkuntzarekin ere bermatzea, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren artean bezalaxe.

Edukiaren ildo nagusiei buruz, argi esan beharra dago hasieratik LOEren egokitzapen baten aurrean gaudela, erkidego autonomoek curriculumaren %45 arau baitezakete, soilik, nahiz eta EAEk hezkuntzako eskuduntza osoak eduki.

Bestetik, inon ez da jasotzen memoria ekonomikorik edo finantzaketa planik eta jakina, horren ondorioz inon ere ez da agertzen irakasleriaren gehikuntzarik ez aniztasunaren trataerarako, ezta hizkuntza normalkuntza suspertzeko, besteak beste. Hezkuntza Sailak orain arteko baliabideekin ipini nahi al du curriculum berri hau martxan? Berriro ere irakasleriaren bizkar gainean erori behar al da motxila osoa?

Dekretu zirriborroan zehar bada beste gai kezkarri bat. Oinarrizko heziketaz ari den arren, lan munduarekiko kutsua du, alegia, sarritan azaltzen dira enplegua, bizitza aktiboa edo laborala eta antzeko aipamenak. Ez al da susmagarria adin hauetaz ari garenean enpresa munduko hiztegiak mintzatzea? Oinarrizko hezkuntza orokorrerako curriculum berria enpresa munduari begira ote?

Antolakuntzarako autonomia aztertzerakoan, guztiz zalantzarria da ordutegi eta egutegiak gehitzeko ahalmena dekretu honetan azaltzea eta ez uztea beste dokumentu baterako. Berauek lan baldintzetan eragin zuzena izan dezaketen neurrian, eragile sozialekiko negoziaketa esparruan kokatuta beharko lukete. Ratioak jorratzen direnean, onartezina da egungo egoera baino okerragoak jasotzea, hau da, 30 ikasle DBHrako. Dekretuan bertan jasotzekotan, oraingo ratioak isladatu behar dira edo bestela, hobeagoak.

Erljioaren atala aztertu aurretik, gogora ekarri behar da STEE-EILASek ikasturte honetan bertan helegite bat aurkeztu duela LOEren aurka epaitegietan. LOEn zein curriculum dekretu honetan ere, batean zein bestean, erlijioa ikastetxeetan txertatzearen aurka gaude. Eskolak esparru laikoa izan behar du eta hain zuzen ere, edozein doktrinamendu xedeetatik babestuta. Curriculumean badira beste hainbat arlo erlijioen historia eta beren eragin kulturala jorratzeko, berariazko saiorki eskaini gabe. Erljioa, azken batean, familia edo norbanako sinesmen pribatuari dagokio eta ez esparru publikoari.

Beste elementu kezkarriak ebaluaketak eta diagnostikoak dira. Izan ere, batzuek zein besteek izan dezaketen eragin publikoa guztiz kaltegarria izan daiteke eta, baldin eta orain artean egin ohi den bezala, ikastetxeak *ranking* batean sailkatzeko erabiliak badira.

Ebaluaketa onuragarria da, proiektuak berbideratzeko, praktikatik irakaspenak ondorioztatzeko, ahuleziak identifikatzeko eta abar, baina emaitza horiek sakoneko errealitateak estaliz komunikabideetan *marketing* gisa erabiliak badira, jai daukagu. Nolako bermeak izango dira hori ekiditeko, dekretu batean ateak zabalik utzi ondoren? Noiz kaleratu dira emaitza akademikoekin batera, ikasle batzuen eta besteen arteko maila sozio-ekonomiko zein kulturalen ezberdintasunak? Zein tokitan abiatzen dira ikastetxe edota ikasle guztiak abiapuntu beretik? Beraz, bai ebaluaketa aberasgarri eta laguntzaile bati, baina erne ebaluaketen erabilpen maltzurerekin. Hori dela eta, Hezkuntza Sailari arreta eta ardura handiz joka dezala eskatzen diogu.

Hiritartasunerako heziketaren arlora iritsita, ezin dugu ahaztu giza eskubide eta baloreetan heztearen betidanik zehar lerro gisa sustatu dugula. Baina oraingoan hori ezinezkoa izanik, giza eskubideak, aniztasuna, berdintasuna, elkartasuna, elkarrizketa eta abar arlo gisa jorratzearen alde agertuko gara, noski. Are gehiago jerarkia katolikoa zein talde atzerakoien jarrera ikusirik. Hain zuzen ere, ikuspegi laiko baten begirada aldarrikatzen dugu hezkuntzarako, etika zein baloreak ez baitira eliza katolikoaren jabejoa, inondik ere. Arlo honek, ordea, badu bere baitan beste eztabaida sakon bat, euskal gizartean ematen den berbera, alegia, egungo marko juridiko politiko eta legediari buruzkoa. Horra hor galdera pare bat: Gure gazteek ez al dute eskubiderik Konstituzioak euskal gizartean izan zuen babes eskasa jakiteko?

Hala eta guztiz ere, esandakoaz gain, ongi deritzogu curriculumaren zutabeak oinarrizko gaitasunetan eusteari eta ez edukietan. Izan ere, bat gatoz finkatzen diren erreferentziazko sei hezkuntza-gaitasunekin: bizitzen ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea, elkarren artean komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, pertsona gisa garatzen ikastea, eta egiten eta ekintzailea izaten ikastea. Bestalde, bat egiten dugu baita ere errealitate eleanitz batean euskarari ematen zaion lehentasunezko izaerarekin, egungo egoera diglosikoari aurre egiteko ezinbestekoa ikusten baitugu.

Halaber, ados gaude EAEn curriculumaren oinarrizkoa eta ofiziala izatearekin. Beste kontu bat da egungo marko juridiko politikoa aintzat hartuta, nolako erabilpena izan dezakeen Euskal Herriko beste lurraldeetan. Ildo honetan, Nafarroan zein Iparraldean tokian tokiko egokitzapenak egin ondoren, hainbat ikastetxek erreferentziazko har dezakete, jakina.

Amaitzeko, Hezkuntza Sailak aurkeztu duen curriculum honi gainbegiratu eman ondoren zera esan dezakegu, batetik, berrikuntzarako ikuspegi onuragarriak eduki badauzkala, baina bestetik, alde ilun ugari ere bai. Beraz, zirriborro izatetik behin betiko dekretua izatera igarotzen denean, berriro aztertu eta orduan eman beharko dugu gure azken hitza.

2007ko uztailak 6.

Belen Arrondo, Amaia Burgoa, Endika Rodriguez eta Jon Moñux

STEE-EILASeko kideak